



Pozoitutako urari buruzko istorioak

Bety, Lima (Perú)

Kaiæo! Bety naiz, eta 11 urte ditut. Limako El Agustino auzoan bizi naiz. Nire amona eta haren familia mendian bizi ziren, baina ezin zuten lurra lantzetik bizimodua atera, eta Limara etortzea erabaki zuten. El Agustino auzora etorri ziren, ezagun batzuk bizi baitziren hemen.

Leku menditsua da El Agustino. Lur-zati bat hartu, eta etæea eraikitzen hasi ziren. Auzo honetan ez dago zerbitzurik: ez eskolarik, ez argirik, ez eta iturriko urik ere.

Auzoan ez zegoen zerbitzurik, ez eta medikurik ere. Haur asko hiltzen ziren, batez ere, hesteetako gaixotasunen ondorioz, adibidez, beherakoak jota.

Hori dela eta, beherakoen arazoa konpontzen saiatzeko antolatu ziren emakumezko batzuk, eta ahotik berriz hidratatzeko unitateak eratu zituzten, beherakoa nola prebeni eta senda daitekeen erakusteko.

Emakumezko horien ekimenari esker, nire auzoko haurren osasuna hobetzen joan da. Nik jangeletan egiten dut lan; nire amak eta izebak, ahotik berriz hidratatzeko unitateetan; eta nire aitak eta anaiak, Auzokoan Batzordean laguntzen dute, edateko ura eta hustubideak kanalizatzen. Auzoaren egoera hobetu egin da, denon laguntzari esker.





Hanna, Addis Abeba, Etiopía

Kaixo! Hanna naiz, 8 urte ditut, eta Etiopian bizi naiz.
Lehen, ez ginen hirian bizi. Herri batean bizi ginen, landan, eta lurra
lantzen genuen, nekazariak ginen.

Zenbait urtetan lehortea izan genuen; lantzen genuen lurrak ez zuen ezer
ematen, eta gosea izan genuen. Ondorioz, hirira etorri behar izan genuen
senitarteko gurztiek, lana bilatu eta janaria erosi ahal izateko.

Addis Abeba du izena orain bizi garen hiriak, eta nire herrialdeko, Etiopiako,
hiriburua da. Hiriko etxean ez dugu iturriko urik. Hortaz, ur bila joaten
gara egunero ahizpa eta biok putzu batera, janaria prestatu eta geure burua
garbitu ahal izateko.

Urak pisu handia du. Niri ez zait gustatzen lan hori egitea, nahiago dut
eskolara joan; izan ere, gauza asko ikasten ditut, nahiz eta jende asko garen
eta estu esertzen garen.

Petroliozko su batean prestatzen du egunero janaria amak. Putzutik ekarritako
ura irakin egiten du beti, tripaiko minik harrapatu ez dezagun. Bueno, nire
bizitza piseka bat ezagutzen duzue orain. Agur!



Frank, Salou (Espainia)

Frank izena dut, 9 urte ditut, eta Saloun bizirik naiz, Tarragonatik hurbil. Jende askok ezagutzen du Salou, hiri turistikoa delako eta jolas-parkea duelako. Niri asko gustatzen zait; izan ere, beti uda dela dirudi.

Hurbileko petrokimika-industria batean lan egiten du aitak, eta hotel bateko bulegoetan amak. Aitona, amaren aita, masia batean bizirik zen lehen, Tarragonatik hurbil, eta lursail batzuk lantzen zituen.

Aitonak azaldu didanez, masian putzu bat zegoen, edateko eta ureztatzekeko ura zuena; halako batean, ura gazitzen eta kalitate txarrekoa izaten hasi zen. Aitonak dio industria askok putzuetako ura hartu zutelako bilakatu zela ur geza itsasoko ur gazia bezalakoa.

Hortaz, 1980 inguruan, amak hamar urte zituela, masia saldu eta Saloura joan behar izan zuten bizitzera. Urbanizazioa dago orain aitonaren garai bateko lurretan.

Udan, ura aurreztu behar dudala gogorarazten didate senitartekoez, oso garestia dela eta ez dugula urik gabe gelditu nahi berri ere. A! Aurten, turistentzako kanpaina antolatu du udalak, ura aurreztu dezaten. Bueno, hurren arte! Agian, Saloun ikusiko dugu elkar!



FITXA 1

Ikertu...  eta erantzun galderei.



Non bizi da zure pertsonaia? Zenbat urte ditu?



Zer senitarteko ditu?



Zer gertatu zitzaion garai batean haren familiari?



Urari lotutako arazorik izan du? Baietz erantzun baduzu, azaldu zer arazo izan dituen.



Gaur egun, zer arazo ditu urarekin?



Zerbait egiten dute egoera hobetzeko? Zer?



FITXA 2

Pertsonaia guztiak ikertzen.
Ondorioak.



Bildu zerrenda batean hiru pertsonaiak berdintzen dituzten gauzak.



Eta beste zerrenda batean, desberdintzen dituzten gauzak.




Ura falta denean, lehortea.



Begiratu munduko mapa honi. Munduko herrialdeetan dagoen ur gezaren kantitatea erakusten du.

Herrialde bat zenbat eta urdinagoa izan, orduan eta ur geza gehiago dauka. Aldiz, ur geza gutxi duten herrialdeak laranja kolorez ageri dira.



Fuente: World Resources 2000-2001, People and Ecosystems: The Fraying Web of Life, World Resources Institute (WRI), Washington DC,





Begiratu aurreko mapari, eta sailkatu herrialdeak bi taldetan: ur asko dutenak eta ur gutxi dutenak. Erabili herrialdeen izenak agertzen diren mapa bat, lana errazteko.

Brasil / Estatu batuak / Maroco / Israel / India / Australia

Ur asko duten herrialdeak	Ur gutxi duten herrialdeak



Hona hemen pertsona bakoitzeko ur-kontsumoa eremuka

Pertsona bakoitzeko eta eguneko litro-kantitatea	
Ipar Amerika eta Erdialdeko Amerika	230
Europa	158
Afrika	30
Asia	64

Erreferentzia: <http://www.ambientum.com/revistanueva/2005-09/aguas.htm>

Espanian, batez beste, pertsona bakoitzak 147 litro ur kontsumitzen ditu egunean.



Aurreko taulari begiratuta, ordenatu eremuak ur gutxien gastatzen duenetik gehien gastatzen duenera







Irakurri honako hau

- ✓ Baliabide mugatua da ura. Munduko ur guztiaren % 1 baino gutxiago da ur geza.
- ✓ Aurreko mendean, hiru aldiz handitu zen munduko biztanle-kopurua; aldiz, sei aldiz ur gehiago atera zuten. Gero eta ur gehiago kontsumitzen da.
- ✓ Pertsona batek egunean 15-18 litro ur behar ditu bizitzeko. Estatu Batuetan, egunean 400 litro ur kontsumitzen dituzte batzuek; Afrikan, berriz, 15 litroekin bizi da familia oso bat.
- ✓ Orain arte bezala jarraitzen badugu, hiru lagunetik bi urik gabe biziko da 2025ean.

Egun bezainbeste ur kontsumitzen segitzen badugu, begira zer gerta daitekeen 2025ean. Begiratu, adibidez, Madagaskarri, Txinari, Estatu Batuei edo Marokori.



Fuente: World Meteorological Organisation (WMO), Geneva, 1996; Global Environment Outlook 2000 (GEO), UNEP, Earthscan, London, 1999.



Goiko taulak irakurri ondoren, idatzi behean zure ustez zer gertatuko den etorkizunean.

Baldin eta	Ur gutxi duten herrialdeetan	Ur asko duten herrialdeetan
Biztanleek ur asko kontsumitzen badute		
Biztanleek ur gutxi kontsumitzen badute		



Ondorio gisa, idatzi zure ustez zergatik dagoen lehortea eta nola aurkitu ditzakegun lehortearen kontrako irtenbideak.



Urarekin dugun konpromisoa...



Maila

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa.

Iraupena

Saio bat eta erdi.

Helburua

Ura iraunkortasun-irizpideen arabera erabiltzeko ohitura eta eguneroko jarrera hartzea eta erantzukizun partekatua baliok ikastea.

Laburpena

Guztion artean erabakitzea ura aurrezteko eta behar bezala erabiltzeko eguneroko ekintzak, eta horma-irudi/manifestu bat egitea.





Metodologia

Ariketa honetan, garrantzi handia du prozesua haurrekin batera egiteak. Hori dela eta, metodologia parte-hartzailea erabiltzen eta haurren proposamenak gauzatzen saiatuko gara.

Horren emaitza ekintzak egiteko konpromisoa hartzea izango da, ez erabakitzea bakarrik. Horregatik, garrantzitsua da ideiak haurrek berek ematea eta inguruan dituzten aukeretatik ateratzea ideia horiek.

Konpromisoak hartzeko, guztion artean erabaki eta ados jarri behar dugu, denok garrantzitsuak garela sentitu behar dugu.

Deskribapena

- **Hasiera**

Ariketari ekiteko, urari buruz egin ditugun ariketak errepasatuko ditugu eta uraren garrantzia gogoraziko diegu ikasleei: ura baliabide mugatua da, ura aurreztu eta behar bezala erabili behar da...

- Bi modutan hasi gaitzke: batetik, ideia-jasa egin dezakete ikasleek taldean; bestetik, denbora-tarte bat utz diezaiekegu informazioa bil dezaten. Aukera batek bestea osatzen eta aberasten du.

Aldez aurretik informazioa bilatu badute, nahikoa izango da ariketari berriz ekin eta dinamika sortzea.

Idea-jasa. Ideia-jasa egingo dugu, ura aurrezteko eta behar bezala erabiltzeko eskolan, etxean, lorategian eta abarretan zer egin dezakegun jakiteko.

Arbelean etxea, eskola, lorategia edo hiria irudikatzen duen marrazkia egin dezakegu, eta horri buruz sortzen diren ideiak idatziko ditugu dagokion marrazkiaren azpian.

Informazioa biltzea: Hainbat modutan bil dezakete informazioa haurrek: senitartekoei eta lagunei elkarrizketa errazak eginda, informazio-liburuxketan begiratuta, udaletxean galdetuta, Interneten begiratuta, etab.

- Gelan ura aurrezteari buruzko liburuxkak, liburuak eta informazioa izatea gomendatzen dizuegu.



- **Erabaki dezagun**

Informazioa biltzeko eta ideia-jasa egiteko fasea amaitutakoan, aipatu ditugun ekintzetatik zein egingo ditugun erabaki behar dugu denon artean.

🗑 Erabakia denok aho batez hartzea litzateke egokiena. Haatik, ikasle guztiak bat ez badatoz, auzia eztabaidatzea gomendatzen dugu, eta proposamenak bideragarriak ote diren denon artean adostea. Hala ere, adostasunik lortzen ez bada, bozkatu egingo dira proposamenak.

- › Ez saiatu ekintza asko aukeratzen. Hobe da gutxi, hurbilekoak eta bete daitezkeenak izatea asko eta zehaztugabeak izatea baino.

- **Horma-irudia/manifestua**

Guztion artean aukeratutako ekintzekin horma-irudia/manifestua egingo dugu, eta hemendik aurrera egin beharreko ekintzak zehaztuko ditugu.

- › Ekintzaren laburpen gisa ikur edo marrazki bat egin dezakezue, eta azpian idatzi zer irudikatzen duen.
- › Horma-irudia egitean, kontuan hartu ikasgelako elementu erdiraunkorra izango dela, gutxienez hiruhileko batean egongo baita. Horrela, beti gogoan izango dituzue uraren inguruan hartu ditugun konpromisoak, eta haiek betetzen ditugun egiaztatzeko erabil dezakezue.
- › Horma-irudia maila plastikoan eta sortzailean landu dezakezue, eta, horretarako, urari buruzko marrazkiak eta abar egin ditzakezue.
- › Interesgarria da erabaki duzuen beste ezagutaraztea (gelakideei, eskolako lagunei, senitartekoei...). Horretarako, ikastetxeko aldizkarian argitaratu daiteke, manifestua irakur daiteke egun seinalatu batean, etxeko pasilloan zintzilika daiteke eta abar.

- **Berrikuspena**

Oso garrantzitsua da konpromisoak berrikusteko edo ebaluatzeko uneak ezartzea hurrengo asteetarako; horrela ikusiko dugu haiek betetzen diren, guztiok egiten dugun, zergatik ez diren betetzen, zuzendu dezakegun eta abar ikusiko dugu.

- › Noizbehinka datuak idatzi eta bildu, zuen konpromisoen segimendua egiteko.
- › Hilabete geroago taldean berrikusteko gomendatzen dizuegu.